



San Miguelen omenezko ekitaldi ugari Aldaban eta Iruran

OSPAKIZUNA ▶

Zaindariaren eguna jendetsua izan zen atzo eskualdeko bi herrietan

AZKEN TXANPA ▶

Bihar emango diete amaiera jaiei; gaur ere hamaika ekitaldi izango dituzte ▶ 6



Goian, Aldabako hamaiketako jendetsua, eta behean, Irurako dantzari txikien emanaldia. N. URBIZU



E. EZEIZA

Linazasororen 'Bestiariora Hilerrikoak' kalean

TOLOSA ▶ Idazleak «bere buruaren eta gizartearen karikatura» egin du liburuan, «arintasunez eta umorearekin» ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

28 Kanala eskualdeko euskarazko telebista berria aurkeztu dute

Etzi hasiko da Ibarra, Belauntzan, Tolosan eta Leaburu-Txaraman ▶ 2

KOMUNIKABIDEAK ▶

28 Kanala Tolosaldeko kate berria, emisioekin hastear

Atzo egin zuten eskualdeko euskarazko telebista kate berriaren aurkezpen ekitaldia; astelehenetik aurrera ikusi ahalko da uhin edota zuntz bidez

IÑIGO TERRADILLOS

Urtebete prestaketetan eta grabaketetan lanean aritu ostean, datorren astelehenean, urriaren 2an jarriko dute martxan 28 Kanala Tolosaldea telebista. Egun horretan Tolosako, Ibarra, Belauntzako eta Leaburu-Txaramako etxeetan, analogikoan nahiz kable bidez ikusi ahalko da, eta gainontzeko herrietan egun batzuk itxaron beharko dituzte.

Hain zuzen ere, atzo egin zuten eskualdeko euskarazko telebista kate berriaren aurkezpena Tolosako udaletxean, eta bertan izan ziren, Ion Aldanondo 28 Kanaleko zuzendaria, Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria (ezkerrean) eta Ion Aldanondo 28 Kanaleko zuzendaria, Jokxe Felipe Auzmendi zuzendaritza taldeko kidea eta Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria. Auzmendik proiektuaren hastapenak nola izan ziren azaldu zuten; «Tolosaldea Garatzenek Goierrri Telebistari Tolosaldean euskarazko telebista sortzeko



Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria (ezkerrean) eta Ion Aldanondo 28 Kanaleko zuzendaria (eskuinean) telebista kateko langileekin batera, atzoko aurkezpenean. I. TERRADILLOS

aukeraz hitz egin zionean hasi zuten guztia; Lehen fasean, Goierrri Telebistaren eta Tokikoren (Tokiko telebisten elkarte) babesa izango dugu, eta aurrera begira, sozietatea eratuko da Tolosaldeko bazkideekin, Tolosaldeko enpresa bat izango da», adierazi zuen. Aldanondo

dok eskainiko duen programazioaren baitan eskualdeko informazioak izango duen garrantziaz hitz egin zuten, eta herrietarrek animatu zituen parte hartzera. «telebista ireki bat izango baita».

Jokin Bildarratzek, bestalde, telebistak eskualdeko herriak

SINTONIZAZIOA ▶

UHIN BIDEZ

Tolosa, Ibarra, Belauntza eta Leaburu-Txarama.

UHF bandan 45 kanalean, urriaren 2tik aurrera.

Villabona inguruan. Urriaren erdialdera Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Larraul eta Alkizan hasiko dira.

ZUNTZ BIDEZ

Euskaltel. Sintonizatu beharrik gabe ikusi ahalko da.

batzeko balioko duela adierazi zuen, eta Aldanondok eta Auzmendik eginiko lana eskertu zuen. Halaber, urte asko behar izan direla eskualdean euskarazko telebista sortzeko esan zuen. «Orain, euskarari bultzada emateko euskarazko eskualdeko komunikabideak, prentsa idatzia, irrati nahiz telebista, bat egiteko lan egin beharko da» gehitu zuen.

ION ALDANONDO ▶ 28 KANALA TELEBISTA KATEKO ZUZENDARIA

«Baliabide xumeekin produktu duin bat egiten saiatuko gara»

Ion Aldanondo gabiriarra da 28 Kanala Tolosaldea telebistako zuzendaria. Badu eskarmentua lan honetan, izan ere, Goierrri Telebistako zuzendaria da, eta tokiko beste telebistetan ere aritu da. Proiektu berriaren inguruan hitz egin du

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Astelehenean hasiko zarete. Zein dira zuten asmoak?

Lehenengo fase honetan, jendeak kate berria sintonizatzea eta ezagutzea da gure asmoa. Lehen 3 hilabeteak beharko



I. T.

ditugula horretarako aurrerikusi dugu.

Zer programazio eskainiko duzue hasieran?

Tolosaldeko informazioa lantzen saiatuko gara, hori baita gure helburua. 2 orduko eskualdeko informazioa izango da, errepikatzen joango gara, baina etengabe aldatuko dugu. Horretaz gain, saiok, dokumentalak eta marrazki bizidunak ere izango dira.

Goierrri Telebistaren eredu mantenduko duzue. Hiru urte daramatza goierrikoak, zer balorazio egin duzue?

Oso gustura gaude. Baliabide xumeekin produktu duin bat ateratzeko dugu. Ia 7.000 pertsonak ikusten dute egunero, eta hori guretzat izugarriko datua da. Tolosaldean antzeko bidea jarraitzea da gure asmoa.

Eusko Jaurilaritzak ez du dekreturik atera, beraz, ez ditu lizentziak banatu oraindik telebista digitalerako. Nola auzartu zarete lizentzia ziurra ez bada?

Analogikoan hasiko gara, eta espero dugu, martxan dauden telebistek erraztasunak eman gogoz dizkietela lizentziak banatzerakoan.

Eskualdeetan euskarazko telebista kateak sortzeko Hamaita Taldea eratu dute. Zer deritoxozu?

Guztiz positiboa da, euskarazko telebistak babesa behar zuelako. Etorbizunari begira egin beharreko gauza bat, ona eta beharrezkoa da. Hemen gabiltzanon babesa izango du talde honek. Hasteko, hiriburuetan ikusten dut, bereziki, hutsunea euskarazko kateetan. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Dekorazio denda. Pertsona bat behar da dekorazio denda batean lan egiteko. Lan esperientzia eta ikasketak baloratu dira. Bidali curriculum-a argazkiarekin alo222c@hotmail.com helbidera. **Zaintzailea.** Pertsona bat behar da haurrak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko Anoetan. 943 65 00 32 edota 659 98 16 87.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentuduna. 635 74 52 91.

SALGAI

Etxebizitza. Leitzan 100 m²ko etxebizitza salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. 699 46 13 65. **Garajea.** Tolosa. Salmentan garaje itxia. 943 65 25 81.

POLITIKA ▶

Paraxutisten instrukzio ariketak uztea eskatu dute

Horrelako ekintzek bake prozesurako ez dutela laguntzen dio Tolosaldea Garatzenek

ERREDAKZIOA

Egun hauetan «eskualean izaten ari diren edo burutu daitezkeen Brigada Paraxutisten instrukzio ariketak ez dira batere egokiak», Tolosaldea Garatzenek «zonaldeko alkateen izenean», esan duenaren arabera. «Euskal Herria bake prozesu baten barruan murgilduta dabil, eta horrelako ekintzek ez dute batere laguntzen», adierazi dute. Hala, «guztien mesederako», paraxutisten instrukzio ariketa hauek «bertan behera uztea» eskatzen dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ **Renfe:** 902 24 02 02

▶ **Donostiako autobusa:** 361740

▶ **Tolosaldea bus:** 650621

▶ **Leitzaran autob.**: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675885

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

KULTURA ▶

Linazasorok liburu berria kaleratu du

'Bestiariora Hilerrikoiak' izenburupean, bere buruaren karikatura bat egiten du

ESTI EZEIZA

Atzo aurkeztu zuen Karlos Linazasoro idazleak bere liburu berria. *Bestiariora Hilerrikoiak* izenburupean, heriotzak uzten duen ezintasun arimazkoari poesia eta umorea erantsi nahi izan dio egileak, kontakizun hilerrikoi honetan. «Nire buruaren eta gizartearen karikatu bat bezala» deskribatzen du egileak liburua.

Elkar argitaletzeko esanetan, «liburu honek Karlosen literaturaren hainbat ezaugarri biltzen ditu: arintasuna, ganberismoa...», eta bere lanen berri ez duen edozeinentzat, liburu hau «aproposa» izango li-

tzateke idazlea ezagutzen has-teko.

Idazle tolosarrak azaldu duenez, «zaila da oinaze eta heriotzaren arrazoiak zeintzuk diren jakitea; hala, galdera hauek, umorearekin azaltzen saiatu naiz».

Egileak gizakiak komunikatzeko duen ezintasuna agertu nahi izan du liburuan. Bestalde, eszeptizismoa da nobelaren beste helburuetako bat.

Izan ere, protagonista poeta bat da, pertsona iluna. Idazleak, gizon nahiko gizajo, baina poeta on bat bezala deskribatzen du. Linazasororen ohiko estiloari jarraiki, *Bestiariora Hilerrikoiak* lanean, aforismo-


 Karlos Linazasoro, *Bestiariora Hilerrikoiak* liburuarekin. E. EZEIZA

ak ere nonahi aurki daitezke. Hauek, gainera, «oso argiak eta eta ukaezinak» dira.

Linazasorok lehen aipatu izan du berarentzat, idaztea «kondena» bat dela. Baina atzo aitortu zuen, liburu honetako orrialde batzuk idaztean, «besteetan ez bezala», gozatu egin duela.

Kontakizun honetan, irakus-

leak, jolasa jolasaren barruan aurkituko du, horren adibide da tituluan letra txikiz irakur daitekeena: *Bi nobela llabur*. Liburu arina izan arren, umore eta ironia bidez, gauza eta gai jasoak jorratzen ditu. Alde batetik, arina, jostalaria eta elkarriketa askokoa da, baina bestetik, aforismoak eta gauza sakonak agertzen ditu.

FITXA TEKNIKOA ▶

Izenburua. *Bestiariora Hilerrikoiak*.
Egilea. Karlos Linazasoro.
Bilduma. Ateko banda I.
Adina. 16 urtetik gorakoentzat.
Salneurria. 10,10 euro.
Orri kopurua. 180.
Kalera data. 2006ko iraila.

Argumentua

Liburuaren protagonista K da, eta heriotzaren presentzia desgaraiokoa eteten du behin eta berriro bere egunerokoa. Badi-rudi protagonistak, bere nobela autobiografikoa idazteko lan-utzialdian dagoen liburu-zainak, zera gogoraz nahi diola irakurlari: heriotzak gure bizitzan agertzeko hitzordurik eskatu beharrik ez duela. Alabaina, herioak sortzen dituen eragozpen eta nekeei umoreaz eta ironiaz aurre egiten die pertsonaiak. Eta, horrenbestez, heriotzak uzten duen ezintasun arimazkoari poesia eta umorea eranstean dio, aforismoen bidez idorrari jarraituz.

SASKIBALOA ▶

Denboraldi hasierako partida jokatuko du gaur Tolosa Aralarrek, Sotojeans Getxo taldearen aurka

Aurtengo helburua, iazkoan ez bezala, mailaz igotzea izango da saskibaloitaldearentzat

ERREDAKZIOA

Iritsi da iraileko azkeneko aste-bukaera eta, horrekin batera, Tolosa Aralarrek 2006/07 denboraldian jokatuko duen lehen jardunaldia. Iaz egindako denboraldi bikainari esker Interautonomiak Maila mantentzea lortu zuten eta bertan ariko dira aurtien ere. Mailak egituraketa berdina izango du,

lehen hiru taldeek mailaz igotzea lortuko dute eta azken zazpiak Probintzial Mailara jaitsiko dira.

Aurtengo helburuak, ordea, ez dira maila mantentzera soilik mugatuko. Iazko esperientzia ikusirik, eta taldean izango diren hiru aldaketekin, mailaz igotzea dute helburu hasiera batean behintzat. Hala ere, ez da erraza izango, talde guztiak

oso parekatuak baitaude. Aurtengo taldean pasa den denboraldiko bederatzi jokalarik jarraituko dute: Kike Konde, Haritz Arana, Alberto Zalduendo, Fernando Mindegia, Mikel Ibañez, Iñigo Larrañaga, Ion Izagierre, Joseba Zubeldia eta Kaiet Vidaurre. Taldera batu diren hiru berriak, aldiz, Iñigo Martiarena, Unai Elustondo jubena- la eta Goar Artetxe izango dira,

azken hau taldera itzuliko da Azepeitia aldean egindako lau denboraldiren ostean. Entrenatzaile postuan Jimy Perezek jarraituko du eta delegatu gisa Jose Llorentek.

Aurkariei buruz esan behar da hiru gipuzkoarrak izango direla, bi arabarrak, bi errioxarrak eta gainontzeko zortziak bizkaitarrak.

Bestalde, zuzendaritzak la-

guntza txartel batzuk jarri ditu salgai zaleentzat. Bertan, TAKE klubeko jokalariek guztien argazki bat ageri da eta atzean, lehen taldeak izango duen egutegia 2006/07 denboraldirako. Bazkide txartel hauek 10 euro balio dute eta edozein jokalariri eskatzea besterik ez dago lortzeko. Hala ere, lehen partidetan lortu ahal izango dira harmailtan egongo den zuzendaritzako edonori eskatuz.

Lehen partida, hain zuzen ere, gaur jokatuko dute, mailaz jaitsi berria den Sotojeans Getxo taldearen aurka. Neurketa Usabal kiroldegian jokatuko da 16:00etatik aurrera.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

GIZARTEA

Erniori gorazarrea

Urteetako usadio zaharrari jarraituz, mendirik bisitatuena bihurtzen da Ernio iraileko ingandetan; Urola eta Oriako haranen artean egonda, tenplu miresgarri itxura hartzen duen mendia bilakatu da

MADDI SOROA

Asteasuñik, Larraldetik, Alkizatik, Hernialdetik, Bidegoianetik, Errezitok edota Alantzi gogor daiteke Erniora. Hamaika bide, baina tontor bakarra. Hamaika abaguntza baina hamaika bakarra. Hamaika ikusmira baina kokapen bakarra.

1.075 metroko garaiera du Ernio mendia jusean. 1.075 metroan, oparitxo mordoa du gordierik. Berdetasunaren edertasuna, baita gutxiaren gaiterik, nagusitasuna du Ernio. Duen garaiera euskalokoa ez izan arren, sekulako oparitasuna du gordierik tontorrean. Aste batera begiratu, itxaso ageri

da, lasai, pebadan, Ernio mendiarri diosala eginez. Beste aldera begiratu, berri. Bidegoian eta Errezitok herriak ageri dira, zintzo bezain xume. Ernio handia babesten.

Hamaika bide baina tontor bakarra. Horixe da Ernio. Hamaika lagun tontorrera iristeko aukera eskaintzen baina guztiak tontor berean batu. Hamaika sorteri, hamaika euskalki, hamaika opari.

Iraileko erromeriak

Ez omen da erraza jakiten, noiz eta zergatik sortu zen iraileko erromerien oihutua. Abuztuaren egiten omen zen lehenengo urtetan. San Agustín Egurenaren ondorengo ingandean, hain zu-

zen, Arrazolari dagokionez, euskalidunen mendizaletasuna aipatzen dute batzuk, erritu kristauengatik sorturiko oihutua dela uste dute beste batzuk. Berietako arrazoia, ordea, ez dago batera argi.

San Joan Txikiaren Eguna dela medio —abuztuaren 09a—, eta ingandean, irailaren azkenekora arte, erromeria egiten dute Ernioko gurutzerak batzuk, honen magalean dagoen Zelatun haranera beste batzuk. Guztiira, milaka lagun igotzen da iraileko ingandetan, jenderik gehien, ordea, hileko azken ingandean batzen da.

Milaka lagun eta eguraldiak laguntzen bada, giro ederraren, Ernio tontorrera iristen da jende andana tipi-tiapa. Batzuk,

agindu dutena betetzera, beste batzuk jaso duten arbatzerengatik eskerrak ematera. Lehenengoak mendira egun pasa eginez, bigarrenekoak oihutari jarraituz. Arrazoi edozein dela ere, ondo pasatako egun politik dira iraileko ingandek, kristautasuna, mendizaletasuna eta euskalidetasuna batzen dituen egun handiak baitira.

Uztai sendagileak

Tontorretik beherako bidean, herri sinismenak, harrizko gurutzeetako batek dituzte uztaitik gorpuzta pasatzea gomendatzen du. Bost uztai dira guztira, harketatik, besoetatik, eta gorpuz osoetik pasa beha-

rrekoak. Sinismenaren arabera, beste ere erromani, baina oro har hazterako gaitortasun guztiei aurre egiteko dira uztai sengoagileak.

Zelatungo festa

Mendi buelara egin ondoren eta behearazko bidean, Zelatungo haranean elkartzen da jenderik gehien. Bertan, ez baita falta esbela bete edota zintzura bustitzeko aukerarik. Zelatungo bi bordetan, gosariak, hamaiketakoak eta bazkariak ere eskaintzen zaizkie mendizaleei. Goizean goiz lanean hasita-ko lagunek, salda, haragi egosia edota txerri, besteak beste, eskaintzen dituzte indarrak berreskuratzeko.



5.000 pertsonetik gora igotzen irailaren 24an, azken ingandean. MADDI SOROA



Tontorretik bueltan, Zelatunen indarrak berreskuratzeko aprobetxatzen du jendeak. M. S.

DATUAK

Altuera: 1075m
Kokapena: Itsasertzetik 15 kilometro eskasera dago Ernio. Urola eta Oriako haranen artean kokatzen da eta Aia, Alkiza, Albitur, Asteasu, Bidegoian, Errezitok, Hernialde eta Larraul herriek inguratzen dute.
Tontorra: Gurutze gehien duen Euskal Herriko mendia da eta sekulako ikusmira du. Eguraldi onarekin, Urola kosta garbi ikus daiteke, baita Oriako harana eta bertako herriak ere.
Tontorreko gurutzea: Leon XIII arean ekimenez jarri zuten XIX. mendean amaitzen.
Bisita: Aste Santuaren Gurutze Bidea—eta iraileko erromerietan bitzen da jenderik gehien.
Erniozaleak Kultur Elkarteak: 1997an Ernio inguratzen duten herrien ekimenez sorturiko Elkarteak da.



Ernioko tontorrak Urola eta Oriako haranen ikusmiran goizateko aukera eskaintzen du, gurutze erraldoiaren babesean. MADDI SOROA

ANTXON AGIRRE SORONDO

HISTORIALARI ETA ETNOLOGOA

«Leon XIII Aita Santuak mendiak sakralizatzeako eskatu zion gizatiari, horretarako gurutzea»

Historialaria, etnologoa eta Eusko Ikaskuntzako partaidea da Antxon Agirre Sorondo donostiarra. Asko daki historiaz. Euskal Herriko oihutuan maiz da, bere hitzetan nabari delarik maiztasuna. Gauza bakoitza bere kontestua historikoa kokatu behar dela dio. Ernio erromerien inguruan duen ikuspegia ematerakoan. **Jakin daiteke noiz ospatu zen Ernio erromeria lehenengo?**

Ernio erromerien zergatia azaltzerik bai?

Antzina, burritziko San Joan ermitak zuen garrantzia eta ez Ernio. Gipuzkoan dauden zazpi ermitak garrantzitsuenetarikoa bat da burritziko San Joan, ospakizunei dagokionez, duen kokalekugatik. Batez ere, muga gisa funtzionatzen baitzuten. Leon XIII. Aita Santuak mendean amaitzear zegoen eta apokaliptikaren belduruz, mendiak sakratu bihurtzeko eskatu zion gizatiari. Izan ere, mundua azken murreretan amaitzen zenean, ustea zenez, tontorren gurutzeak jarri lurra sakratu burutu nahi izan zuten. Hortik sortu zen mendi tontorren gurutzeak jartzen hasi zirenean. Ernioko lehenabiziko gurutzea 1889 inguruan jarri zela ere badakigu. Orduzki, ordea, behin baino gehiagotan aldatu da.

Zergatik egiten da iraileko ingandetan?

Abuztuaren 29an San Joan Batallatzailearen martirio eguna ospatzen da. Lehen, ospakizunaren egun bera errespetatzen zen, orain, ordea, modernitatearen gainazko aldatu egin dira eta ingandetan pasa zuten erromerien ospakizuna, hala, jende gehiagok jouteko aukera duela.

Zer dela eta gurutzeetaraino erromeriak?

Hasieran, gurutzeetarako erromeriak, pententzia kutsuak ziren. Geroago, ordea, festa giroko erromeria herrikoiak ezarri ziren Zelatunen. Baina landetako erromeria beste kontzeptu bat da. Beraz, esan daiteke XIX. mendean amaitzen



M. S.

gurutzeak ezarri zirenean sortu zela jainkoizaletasun herrikoia eta horren ondorioz herriko gurutzeetako erromerien oihutua, pententziatik, misioak, erreguak eta abar egiteko. **Gurutzeetako erromerien beste arrazoi bat Ojeolatria dela aipatu izan duzu.**

Gizakiak garen momentuak, gizakiaren kulturazko gara, eta beraz, barnean daramagun ojeolatria. Hori izan daiteke Ernio erromeriak egitearen beste arrazoietako bat. Horrek arrazoitzen du mendietan dauden ermita eta gurutze kopurua, mendietan egiten diren erromeriak, mendi martxak edota mendi karretrak. Azken batean, mendia jatean torzen den gozamina.

Ernio bidean txuri, gorri eta berde koloreko zinta luzeak ageri dira edonon?

Ernio oso gauza modernoa da, oihutua bertan da. Ezozko tokitako edozein erromeriatan hamaika gauza jartzen zen salgai, eta koloreko zintak ere bai. Gerta liteke jendeak zinta horietan gurutzea ukitu eta modu horretan gurutzaren sakratutasuna zintara pasa dela pentsatzea. Hori sinemen herrikoia da, baina zintek ez dute berezko arrazo historikorik. Gaur egungo bizitza dagoen gauza da.

Tontorrera iritsi aurretik bost uztai dauka gurutze handi batek zintzik.

Erlitziotasun herrikoia den barne oso garrantzitsua den beste gai bat, toki aldiatzen den sakratutasuna da. Gurutzeak zintzikak dauden bost uztaiak gurutzetik pasatzen dituzte jendea, hori eginez, gero, airtirisa edota hezurretako gaitortasunak sendatzen direnaren ustea baitago. Kontzistia honakoa zen: gurutze elementu sakratua baldin bada eta honi lotuta uztaiak baldin badaude, elementu sakratua uztaietara pasatzen da eta uztaiak gurutzetik pasatzen diren elementu sakratu gurutzaren inguruan da.

Tontorren, berri, gurutze tuki mordoa ageri dira gurutze handiaren ondoan.

Ernora egindako misio, erregu eta pententziatzen jarraituko gurutzeak dira. Ezakizunak egiteko oihutua gisa jarri izan ditu jendeak. Erdio munduan, ex-boto izena hartzen dute. *

KILOMETROAK 06 **PRIMERAN PASA PASATU GABE**

URRIAK 1 **OLARTZUN** **inGoYeu!** **inGoYeu!** **www.kilometroak.net**

HARTZEARO **HAUSTOLA** **hitza**

SAN MIGUEL JAIK ▶

NEREA URBIZU

San Miguel Eguna jendetsua izan zen, atzo, bi herrietan, bai Aldaban eta baita Iruran ere. Iruran, frontoian ospatu zuten meza eta sarreran Irurako dantzari txikiak itxaron zuten, denak batera San Migel plazara joateko. Alkateari aureskua eskaini zioten, eta ondoren hainbat dantza egin zituzten txikiak. Hamaiaketakoan jende asko bildu zen, ondoren Loatzoko musika eskolakoak entzuteko.

Arratsaldean berriz hainbat herrietako dantzariak ibili ziren, jende andanaren aurrean saioa eskaintzen. Gaur gazte-txoentzako parkea izango da goizean zehar Loatzoko plazan. Ezkonduen eguna izanik, Dantza Soka egingo dute 13:30ean San Migel plazan. 16:30ean herri kirolak eta baita haur-animazioa ere, Keimaren eskutik.

Aldabako sanmieletako lehen eguna «jendetsua izan zen», jabetxean esandakoaren arabera. Jabetxean hamaietakoan izan zuten mezaren ondoren. Txorizoa, olibak eta fritoak jan ahal izan zituzten bertaratu ziren auzokoei. Giro oso onean zeuden mahaiaren bueltan. Onena etortzekoa zegoen, or-

Mikel, Migel... denak festetan

Jende asko bildu zen atzo Aldaba eta Irurako, jatorduetan eta musika inguruan



Aldabako jaietan egindako hamaietakoan jendetsua izan zen. N. URBIZU

dea, izan ere, «afaltzera jende gehiago etortzen da: gazte jendeak ez du lanik egiten eta giroa ziurtatuta dago: gainera, trikitilariak izango dira», zioten jabetxean. Gaurkoan, 19:30ean, patata tortila lehiaketa izango dute aldabarrek, eta osagaiak ez diren guztiak bakoitzak eramane beharko ditu. Zahagi ar-

doa 21:00etan izango da, eta gauean, erromeria Irma eta Ametsekin.

Eta bihar meza nagusiaren ondoren, 12:00ak aldera, hain zuzen, pilota partidak izango dira: Urretabizkaia eta Bereziartu; Maiza eta Gaiurralde, eta Jubenilak Alonso eta Olano, Iburguren eta Artola.



Irurako dantzari txikiak: espata eskuan hartuta agurra egin zuten. N. U.

ALEGIA ▶ NATURA



Ez dira tomate makalak, Alegikoak

N. Urbizu ▶ Lukas Lasa alegiarrak bere baratzean atera ditu tomate pieza eder hauek. Duela egun batzuk hartu zituen bere eskuakin. Hauek hiru dira, baina gehiago ere ba omen ditu. Eskuineko eskuan duen tomate gorriak kilo eta bederatzi ehun kilogramoko pisua dauka. Handiak bezain goxoak direla ere esan dute. Itxura behintzat halakoa dute. Badu entsaladan jateko denbora baterako. Honez gero hasiko ziren etxean tomate txikitzen eta kristalezko poteetan sartzen, egosi ondoren hainbat jakiri botatzeko. Zer izango ote du Lukasen baratzeoko lurrak? Ongarria, dedikazioa, Alegiko klima... Dakiten bakarra handiak bezain goxoak direla. HITZA

BIDEGOIAN ▶

Kultur Asteko azken egunean ume-jolasak

Bidegoiango Kultur Asteak gaur azken eguna izango du. Egunean zehar haurrentzat jolas parkea izango dute bertan: 11:00etatik 13:00 etara eta 15:00etatik 18:00etara. 15:00etan ere Marrakzi Lehiaketa egingo dute. 18:00etan, *Erreka Mari* txotxongilo saioa eskainiko du Enkarni Genuak. Amaitzeko txokolatada izango dute.

AMEZKETA ▶

Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Amezketako Gazte Taldeak eta Euskara Elkartek urriaren 15ean Beran izango den Nafarroa Oinezarako autobusa antolatu nahi dute. Berako Labiaga ikastolari laguntza emateko hasi dira lanean bi taldeak. Autobusa antolatzea pentsatu dute: joan-etorria autobusean egin nahi duenak, herriko ohiko tabernetan eman beharko du izena.

ALEGIA ▶

Sexu heziketaren inguruko hitzaldia gurasoentzat

Alegiko Aralar institutuak antolatutako sexu heziketaren inguruko hitzaldia izango da gurasoentzat hurrengo ostegunean, urriaren 5ean, alegia. Institutuko liburutegian izango da, 18:00etatik aurrera. Irusta taldearen eskutik izango da. Seme-alaben hezkuntzarako garrantzitsua izango denez, guraso guztiak daude gonbidatuta.

ALEGIA ▶

Kubakoan margolanak jubilatuenetan

Patxi Tena tolosarrak Kubatik ekarritako margolanak daude ikusgai, Alegiko Jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte izango da ikusteko aukera. Koadroren bat salduz gero, diru hori Kubako Santa Klara herrira eramango dute, horrekin artista kubatar gazteek margotzen jarraitu dezaten materiala erosi ahal izateko.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritzan, Udaletxean eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari

laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

Taberna · Jabetxea
alokatzen da
Alegian
943 65 28 16
629 91 19 36

TOLOSA ▶

Garagardo Azoka urriaren 5, 6, 7 eta 8an izango da

Ostegunetik igandera, arratsaldeko seiretatik iluntzeko hamabiak arte zabalduko dute

M. SOROA

Urtero moduan, eta aurten zortzigarren urtea betez, Garagardo Azoka ospatuko da urriaren 5, 6, 7 eta 8an. Aurreko urteetan irailaren hirugarren asteburuan ospatzen bazen ere, aurtengoan bi astez atzeratu da. Arrazoi nagusia Tolosaren 750. urteurrena izan da. Izan ere, batetik ospakizun asko izan dira, eta, bestetik, Zerkausia berritze lanetan zegoenez, ezin izan da bertan egin. Azkenean, ordea, esan bezala, urriaren 5, 6, 7 eta 8an burutuko dute garagardoaren festa.

Ordutegiari dagokionez, arratsaldeko seiretan hasi eta iluntzeko hamabiak arte egongo da zabalik azoka. Larunbatean, berriz, eguerditik aurrera zabalduko dute.

Guztira 21 garagardo ezberdin dastatzeko aukera egongo da azokan, garagardo beltza, fina... Jateko aukerarik ez da faltako ordea; bertan egongo den janariari dagokionez, janaria, kodilloa, saltxitxak, patatak, solomo saxoina, pastela eta gazta izango dira.

Gogoratu, Garagardo Azoka Tolosako lau kirol talde ezberdinek antolatzen dutela, talde horiek, Tolosaldea IKT, Tolosako Judo Elkartea, Hegoalde Kirol Elkartea eta Tolosa CF Txirrindularitza taldea dira. Talde horietako kirolariak izango dira lanean ariko direnak, 200 guztira. Beraz, azokan zehar jasotako irabaziak aipatu kirol taldeak laguntzeko izango dira.

ARESO ▶ EHIZA

Ehiza postuen jabeak gaurko enkantean erabakiko dituzte

27 postutik 18 falta dira esleitzeko; gaur erabakiko dute ehiztariek, 19:00etan udaletxean egingo den enkantean



laz ospatu zen birgarro eta usoen postuetarako enkanteko irudia. JAIONE ASTIBIA

MADDI SOROA

Ehiza garaia hasteko denbora gutxi falta den honetan, ehizterako postuak prestatzen ari dira bi eskualdeko ehiztariak. Areso ere, ez da atzean gertatzen, ordea. Urtero bezala, Urteagako mendian birgarro eta usotarako postuen enkantean murgilduta daude aresoarrak.

Pasa den larunbatean ekin zitzaion enkanteari, baina, urtero gertatzen den moduan ia ez zen posturik esleitu. Antza, «azken unera arte itxaroten» omen du jendeak, «sesteoetan diru gehiegi ez gastatzeko».

Atzo arratsaldeko zazpitan, erabakita zeuden gauza asko, ordea. Antolatzaileetako batek

jakinarazi duenez, 10., 22., 24., 25. eta 26. postuak desertuak geratu ziren joan den astean, horregatik, gaur berriro aterako dira enkantera. Aipatu, %10eko deskontua izango dutela, beraz, 81 eurotan aterako dira. Lehengo larunbatetik hona sesteatuak izan diren postuei dagokionez, 1., 2., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 12., 13., 17., 20. eta 21. izan dira.

Lehengo astean enkantean atera zirenak baina sesteatu ez direnak, hau da, adjudikatuak izan direnak, berriz, 3., 11., 14., 15., 16., 18., 19. eta 27. izan dira.

Prezioen kasuan, posturik garestiena 3.120 euro ordaindutakoa izan da, merkeena, berriz, 90 eurotan geratu da. Aipatu, prezio horri %20 batu be-

har zaiola. %16a BEZarengatik, eta geratzen den %4a, postuetan garbiketarako eta konponketarako erabiltzen da, baita kartutxoak biltzeko ere.

Lege zaharra mantenduz

Aresoko postuen enkantea bi zatitan egiten da, lehena hilaren 23an egin zen eta gaurkoan egingo da bigarrena. Horren zergatia, antolatzaileetako batek aditzera eraman duenez, «garai bateko ohitura mantentze kontua da». Izan ere, lege zaharrak zioen enkantea egiten den bakoitzean, astebeteko epea utzi behar zaiola sesteatzeari. Azkenean ohitura bilakatu da eta horregatik egiten dute bi egun ezberdinetan.

IBARRA ▶

Kuraiaren azken kontzertua Gaztetxean

Kuraia eta Xabier Silveira «piztien arteko lehia» izango da gaurko saioan

M. SOROA

Gaur, 00:00etan, Ibarrao Gaztetxean Kuraiaren kontzertua izango da urriaren 28an Ibarrao ospatuko den Elkartasun Egunaren harira. Ez da ordea Kuraia soilik ariko, «bi piztien arteko lehia» izango dela adierazi baitu Kuraia taldeko batera-joleak. Batetik, Kuraia ariko da piztia lanetan, bigarren piztia, berriz, Xabier Silveira bertsolaria lesakarra izango da.

Kuraiak Ibarrao eskainiko duen azken kontzertua izango da gaurkoa, izan ere, taldea utziko dutela adierazi dute partaideek. Ez da nolana hiko emanaldia izango, ordea, izan ere, «bi piztien arteko lehia» aurreikusia dago. Batetik Kuraia taldea ariko da, bestetik, berriz, Xabier Silveira bertsolaria.

Kuraia taldeko batera-joleak adierazi duenaren arabera, «kontzertu berezia izango da guretzat», izan ere, «aspalditik gertatzen diren kontzertu horretarako proposa izango zela ikusten» zutela baieztatu du.

«Silveirarekin kolaborazioak egin ditugu, baina beste formatu batera eraman nahi genuen kolaborazioa», diote Kuraiakoek. Gainera, «Mareako kantariak zioen bezala, musika, musikak eta rokak ero moduan txortan egiten dutena da».

ARAMBURU
Salgai (Iruia), Pisua.
Salgai (Tolosa), Pisua San Frantzisko, 17. 140 m2. Bistekin.
Salgai (Tolosa), Pisua Larramendi kalean.
Salgai (Tolosa), Ilepaindegia lurre auzoan.
Salgai (Tolosa), Belardenda, kale Nagusian.
Salgai (Tolosako Iurren), Ofizinarako.
Salgai (Villabona), Lokala dendarako edo ofizinarako.
Salgai (Ibarra), Garajeak, Euskal Herri kalean.
Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidean, San Frantzisko eta lurre auzoan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Carpintería ATARI, S.L.
AROEZTEGIA
Arrozgi mekanikoa. Oinak eta berriak.
Ekoizpen eta altxorak berriak. Ezerberritzeak eta itak konertzatzearen aroztegia.
Tel: 943 69 01 40 - Fax: 943 69 34 29

Bat Garajea
Ondo pasa Irurako jaietan!
Tel: 943692205 • Fax: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURUA

Joxean
• iturgintza • berokuntza
• aire egokitua • gasa
• inst. industrialak
Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei
Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURUA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808

OKINDEGIA ETA GOZOTEGIA
Opel
Gora Sanmielak!
Kale Nagusia, 1 • IRURUA
Tel.: 943 69 43 56



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Bidegoian. Kultur Astearen baitan, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara haurrentzat haur parkea; 15:00etan Marrazki Lehiaketa; 18:00etan, Enkarni Genuaren *Errekamari* txoxongilo emanaldia. Ondoren, txokolotada.
Tolosa. 19.30ean, *Kutsidazu bidea Ixabel* filmaren estreinaldia, Leidor aretoan.
Tolosa. Iñaki Amutxastegi apaiza omenduko dute, Santa Maria elizan, 19:00etan.
Tolosa. *Etxebizitza duin baten alde*, 18:00etan Triangulo plazan, sentada.
Villabona. Bihar, Garazi-Okabe mendi irteera antolatuta du Aizkardi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonon (Joxan).

JAIAK

Aidaba. San Miguel jaien baitan, 19:30ean, patata tortilla lehiaketa; 21:00etan, Zahagi ardoa, pilotalekuan. Aulkia, ardoa eta sagardoa egongo da; 23.30ean, erromeria, Irma eta Ametsekin.
Irura. San Miguel jaien baitan, 10:30etik 14:30era, Gaztetxoentzako parkea Loatzo plazan; 13:30ean, ezkonduen dantza soka, San Migel plazan; 14:30ean, ezkonduen bazkaria Aizpurua jatexean; 16:30etik 19:30era, euskal kirola, jolasak eta haur animazioa; 20:00etan, Bike Trial Show erakustaldia, Loatzo plazan; 23:00etan, Play-back jaialdia frontoian; ondoren, frontoitik San Migel plazaraino herensugea eramango da prozesioan eta azken trakarekin erreko da. Jarraian, dantzaldia San Migel plazan, Laket taldearekin.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.
Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai izango dira, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte.



'Esperientziak' proiektatuko dute gaur

TOLOSA ▶ Gaur, 21:00etatik 01:30era, 9.000 irudien artean aukeratutako argazkiak proiektatuko dituzte, Gipuzkoako Artxibategi Orokorreko fatxadan. Argazki hauek Tolosako herritarrek utzi dituzte *Esperientziak* izeneko proiekturako. Argazkiez gain, proiektu honek Tolosaldeko hirurogeita hamar urtetik gorako pertsonen egin-

dako hainbat elkarrizketa biltzen ditu bere baitan, XX. mendeko oroitzapen historikoa berreskuratzeko asmoz. Erakusketa Aranburu Jauregian ikus dezaketa interesatuek egunero egunero —astelehenetan izan ezik—, igandeak barne, 17:30etik 20:30era. Irudian, bildutako argazki guztietariko bat. HITZA

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Maidera eta Unai. Oso zorionsuak izan eta zuek bezain ederra izan dadila gaurko eguna eta datozenak ere.



URTE ASKOAN
Aritz Aierza (Tolosa).
Gaur 4 urte. Zorionak
Asier ta etxekoan partez.

Bertan lortutako dirua, Kubara bideratuko dute.

KIROLAK

Villabona. 15 eta 17 urte azpiko Gipuzkoako Halterofilia Txapelketa, Olaederra Kiroldegian, 10:30ean.
Tolosa. Tolosa Aralarrek Sotojeans Gebko taldearen aurka jokatu du, Usabal kiroldegian, 16:00etan.
Tolosa. Tolosa CF futbol taldeak Beasainen aurka jokatu du, 16:30ean, Berazubi futbol zelaian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri.*
22:00-23:00. *Street.*

Goiko irratiak (107.0 FM)

13:00. *Kornerra* magazina.
Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
agurren tarta

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...